

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Uda panpoxten

SUGANDILAK lagun ditudan leihotik begira, ubel agertzen dira kardoaren lore ziatzai-leak, *Cynara cardunculus*. Begirako estetikan ubelak ez du, nire leihotik, laranja kolorea baino lagun hoberik. Neguan maizago ikusten dira bi koloreok elkar hartuta, bioletak (*Viola sp.*) nahasiz edo haien artean idi-bihotzak, tulipak, jarriz (*Tulipa sp.*).

Sasoi honetan, leihopean bertan dut, lorez mukuru finolatzen da estrelitzia edo paradisuko txoria, *Strelitzia reginae*. Hego Afrikatik ekarritako landare honek lore bakoitzean du kolore joko hau. Jokoa hosto urdinxekek panpoxten dute. Geurean, txoko eguteretan galanki loratzen da eta, bero zalea izaki, pagotxa ederra datorkio klima aldaketarekin.



JAKOBA ERREKONDO

Egundo ez bezala ikusiko da aurretzean lore dotore hau, baraztean bezala sortetan, pitxerkadaka.

Harantzaxeago, ubel garatzen den karduak hosto urdin-urdinak ditu, gris argi argiak. Goiko ubel morea eta barreneko laranja kolorearen tarte paregabea da urdin hau. Beheko ilenak (*Calendula officinalis*) margotzen du laranja. Soltizio sasoi honetako ikuskizunetako bat.

Izenetik badu ilenak: baltsamobelarra, aingeru-lorea, ebaki-belarra, hilerri-lili... Sendabelar ezaguna da, batik bat azaleko gaitzen kontutan. Hortik baltsamo-belarra, ebaki-belarra eta ukenduetarako lorea erabiltzen denez, aingeru-lorea. Hilerrietan maiz ikusia dela eta, hilerri-lilia. Paraje beretik ote datorkio ilena izena? Hilena, alegia.



JAKOBA ERREKONDO

Sasoi bete

Oraintxe da marrubi edo mailukien sasoi betea. Oraindainokoa jan ditugun marrubi eta marrubitzarrak urruti eta landareen bizi-baldintzak behartuta sortuak izan dira. Oraintsu hasiak dira gorritzen bertakoak, bai baraztetako pottoloak baita eguzkiak kilimatzen dituen murko eta penditzetako miko eta txikerrak. Landarean bertan lasai gorritzen utzi eta, goizean goiz, bildu ahala jan; aho-sabaiak aditzen duena ondo gorde garunean, usaimenen karpetan, betiko gogoan tinko gera dadila....



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.